



Mutrikuko Udala

MUTRIKUKO UDALA

ANIMALIAK EDUKI ETA BABESTEKO UDAL ORDENANTZA ARAUTZAILEA

ARRAZOIEN AZALPENA

Animaliak babesteari buruzko Eusko Legebiltzarraren urriaren 29ko 6/1993 Legeak gutxienezko esparru juridikoa ezarri zuen gizakion eta animalien arteko bizikidetzaren arautzeko, osasungarritasun publikoaren zainketa eta animalien gaineko errespetua, defentsa eta babesaren uztartuz, betiere interes orokorrekin doitutako orekaren barruan.

Aipatutako Lege hori argitaratu eta indarrean sartu zenetik, gehikuntza kuantitatibo nabaria izan da animaliak edukitzearen fenomeno sozialean eta, horrekin batera, baita animalien eskubideei eta gizarte-eremu modernoan bizikidetzaren egokia arautzeko marko zorrotzagoren baten beharrezanari buruzko kontzientzia sozialean ere.

Beste alde batetik, arlo honetan arauzko erregulaziorako prozesu sendoa egon da. Horren adierazgarri garrantzitsua, seguruenik, animalia arriskutsuak edukitzeko araubide juridikoari buruzko abenduaren 23ko 50/1999 Legea izan zen. Legea behar bezala aplikatzeko beharrezko, gure eremu autonomikoan berariazko arau bat onesteari alde egin zen, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeko arauak ematen dituen apirilaren 4ko 66/2000 Dekretua xedatuz, hain zuzen. Beste hainbat gairen artean, "arriskutsuak izan daitezkeen animalien" figura ezarri zuen, zenbait animalia edukitzeak gizartean sortutako aipatutako kezkarri erantzuteko asmoz. Hala ere, arau horren indarraldia arras eztabaidatua izan zen, martxoaren 22ko 287/2002 Errege Dekretua argitaratu zenean. Dekretu horren bidez abenduaren 23ko 50/1999 Legea garatzen zen, Lege horren aplikazio-eremua zehaztasunez mugatuz, neurri handi batean oinarritzko izaerarekin.

Segurtasun juridiko gabeko egoera sortu berria gainditu eta erregulaziorako marko egonkorra finkatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko ekainaren 1eko 101/2004 Dekretua argitaratu da. Dekretu horrek, berrikuntza batzuekin, aurreko araudi moldatu eta, beharrezko izan den kasuetan, hasieran aipatutako animaliak babesteari buruzko urriaren 29ko 6/1993 Legearen testuinguruan kokatu du.

Berriki eta gune zoologikoak arautzeari dagokionez, apirilaren 11ko 81/2006 Dekretuak araudia aldatu egin du.

Horren harira, Ordenantza honek prozesu hori guztia bildu eta gaurkotu egiten du, eta animaliak eduki, babestu eta merkaturatzeko arauak ere jasotzen ditu, udal jardueraren eremura egokituz, tresna erabilgarria eta eraginkorra izan dadin batetik animaliak edukitzearekin eta, bestetik, ondorioz gizarte moderno eta konplexuen markoan gizakiekin elkarbizitzeko fenomenoarekin zerikusia duten alderdi eta jardun-eremuen arteko konplexutasun elkarlotua arautu, kontrolatu eta bertan esku hartzeko.

Azaldutakoarekin harremanetan, 1996an onartutako Animalien Edukiera eta Babesa arautzen duen Udal Ordenantza aipatu behar da, bere garaian erreferentea izan zena, baina lehen adierazi den bezala, oinarritzko araudiaren aldaketek arlo horretako udal araudia eguneratzeko beharra ekarri dute



Mutrikuko Udala

I. TITULUA

HELBURUA, DEFINIZIOAK ETA EZARPEN EREMUA

I. KAPITULUA. APLIKAZIO-EREMUA ETA HELBURUAK

1. artikulua.

Ordenantza honen aplikazio-eremu geografikoa Mutrikuko Udalerri osoa da.

2. artikulua.

Ordenantza honen xedea da udalerrian dauden etxeko animaliak, animalia etxekotuak eta animalia basatiak babesteko, elkarbizitzeko, edukitzeko, erabiltzeko, erakusteko eta merkaturatzeko arauak jartzea, udalerrian zentsatuak edo erroldatuak egon ala ez egon, jabe nahiz edukitzaileak bizi diren lekuan bizi direla.

Horretarako animaliek tratuari, higienerari, zainketari, identifikazioari eta babesari dagokionez jaso beharreko arreta minimoak zein diren ezartzen da eta, halaber, establezimendu berezituetan, osasun-arretan, merkaturatzerakoan eta saltzerakoan bete beharreko arauak ere ezartzen dira.

Honako arlo hauek ordenantza honen aplikazio-eremutik kanpo daude, araudi propioa baitute:

- a) Ehiza.
- b) Arrantza.
- c) Basoko faunaren babesa eta kontserbazioa bere ingurune naturalean.
- d) Zezenekin eta/edo bigantxa, idi eta zaldiekin egiten diren festak.
- e) Animaliak ikerkuntza eta bestelako helburu zientifikoetarako erabiltzea.
- f) Hegazti-tiroko lehiaketak.
- g) Hainbat herri-kirol, elementu nagusia etxeko animaliak direnean.
- h) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzea, ordenantza honetan araututako zehaztasunak salbu.

II. KAPITULUA. DEFINIZIOAK

3. artikulua.

1. Lagun egitekoko animalia:



Mutrikuko Udala

Gizakiak mantentzen duen animalia, batez ere etxean, etxeko animalia zein animalia basatia izan, eta jostatzeko, hezteko nahiz apaintzeko, gordetzeko edo babesteko helburuz edukitzen dena, inolako irabazteko asmorik gabe.

2. Ustiaketarako animalia:

Gizakiak irabazteko asmoarekin mantentzen dituen animaliak, irabaziak zuzenean animalien ustiaketatik lortzen direla nahiz haiengandik eskuratutako produkzioen ustiaketatik lortzen direla.

3. Basa animalia gatibutzan:

Berez basa-animaliak izanda gatibutzan jaio diren animaliak edo naturan libre jaio arren, gatibutzan dauden animaliak, baina gatibutzaren helburua ez bada animalia etxekotzea edo heztea

4. Animalia abandonatua:

Animalia abandonatutzat jo dira jabe edo helbide ezagunik ez dutenak, animaliaaren datuak jakiteko sistemarik ez dutenak eta erroldan ez daudenak.

Era berean, animalia abandonatutzat joko dira ondorengo egoeretan daudenak: erroldan egon arren animaliaaren jabeak ez badu arautegiak ezarritako epe barruan haren desagertzearen salaketarik egin, edota bide publikoan jaberik gabe dabilena.

5. Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak:

Ordenantza honi dagokionez, eta segurtasun publikoari buruzko legerian xedaturikoa baztertu gabe, ondoko hau hartuko da “baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animalia” gisa: udal agintari eskudunek banaka halakotzat jo eta hala katalogaturiko txakurra. Horretarako irizpide objektibo batzuk hartuko dira kontuan, hala nola salaketarik jaso izana, portaera oldarkor edo erasokorra agertu izana, edo pertsona eta/edo animalientzako arriskua agerian jartzen duen beste edozein inguruabar.

6. Arriskutsua izan daitekeen animalia:

Oro har, fauna basatiko animaliak izanik etxeko edo lagun egiteko animalia gisa erabiltzen direnak, beren oldarkortasuna alde batera, pertsona edo beste animaliei heriotza edo lesioak eta gauzei kalteak eragiteko ahalmena dutenak.

Beren oldarkortasuna, tamaina edo barailaren potentziarengatik pertsona edo beste animaliei heriotza edo lesioak eta gauzei kalteak eragiteko ahalmena duten etxeko edo lagun egiteko animaliak ere, bereziki txakurrak, arriskutsuak izan daitezkeen animaliatzat hartuko dira. Arauz zehaztuko da zein diren.

Horrelako animaliak edukitzea Euskal Autonomi Erkidegoan txakurrak edukitzari buruzko 101/2004 Dekretuaren bidez arautuko da.



II. TITULUA

ARAU OROKORRAK

I. KAPITULUA. IZAERA OROKORREKO ARAUAK

4. artikulua.

Orokorrean baimendu egiten da etxe partikularretan lagun egiteko etxeko animaliak edukitzea, baldin eta etxeak, etxeko instalazioek eta animalien kopuruak zein tamainak horretarako aukera ematen badute osasunaren eta garbitasunaren aldetik, eta auzokideentzat, animalientzat edo beste edonorentzat arrisku egoerarik edo eragozpenik sortzen ez baldin bada.

Debekatua dago balkoietan, garajeetan, pabiloietan, sotoetan, zabaltzetan, lorategietan edota bestelako edozein lokaletan animaliak edukitzea, estabulatzea edo erdi estabulatzea, baldin eta animaliek auzokide zein oinezkoei beren usain, zikinkeria, ulu edo zaunkekin traba egiten badiete.

Era berean debekatua dago txakurrak eremu ez urbanizagarrian dauden baratze eta antzekoetan edukitzea, eremu horiek baserri edo landetxeen erabilerarako lursail itsatsiak ez badira behintzat.

5. artikulua.

Debekatua dago hirigunean ustiaketa- animaliak hazteko helburuz edukitzea, eta ezin izango dira estabulatu etxe partikular, terrazak, zabaltza, ganbara, soto, trasteleku, bodega, patio eta antzekoetan.

6. artikulua.

Basa animaliak parke, zoologiko edo antzeko helburua duten bestelako lekuetatik kanpo edukitzeko indarrean dagoen legeria bete beharko da kasu bakoitzean, eta jabea arduratuko da auzokideentzat inolako arrisku edo eragozpenik ez sortzeaz. Horregatik debekatua dago animalia hauek solte lagatzea gune irekietan edo jendea dabilen lokaletan.

7. artikulua.

Animalien jabeak edo edukitzaileak behartuta daude animaliei janari eta zainketa egokia ematera, gaixotasunen tratamendua dela zein osabidea dela, animaliak ahalik eta ongien bizitzeko, bai eta agintariak ezarritako administrazio neurriak zein osasunaren prebentzioari buruzkoak betetzera ere. Horiez gain, animalia mota bakoitzak dauzkan ezaugarrien arabera biziak eman beharko diete jabeek animaliei.

Halaber, txakurrak ezingo dira etxean 24 h egun jarraian baino gehiagoan bakarrik utzi.

8. artikulua.

Animaliak ondo babestuak egon daitezzen, erabat debekatuak daude:



Mutrikuko Udala

1. Animaliak bortizkeriaz edo substantzia toxikoak emanez akabatzea, bide zein gune publikoetan substantzia toxikoak gordailatzea eta norbere zein inoren animaliak zauritzea, ankerkeriaz tratatzea edo tratu txarrak ematea, etxeko animalia, animalia etxekotua zein basa animalia izan.
2. Animaliak antzerki, diskoteka, pelikula edo propaganda jardueretan erabiltzea, baldin eta erabilera horren ondorioz, animaliak sufritu edo mina hartzen badu edota degradatzen bada.
3. Animalien arteko borroka-saioak, publikoak zein pribatuak, baldin eta bertan animaliak akabatu, zauritu, izutu eta erasotzen badira.
4. Animaliei gorputz atalen bat moztea, ez bada, behintzat, albaitariaren kontrolpean helburu terapeutikoz, arrazoi funtzionalez edo arrazaren ezaugarriei eusteko egina.
5. Espreski debekatzen da animaliak abandonatzea.
6. Adin txikikoei animaliak saldu, laga edo ematea.
7. Animalien salmenta ibiltaria, baimendutako merkatu eta azoketan izan ezik.
8. Animaliak administrazioaren kontrolik gabe klinika eta laborategiei saltzea.
9. Alkohola, drogak eta botikak ematea edo kalte fisikoak zein psikikoak eragin diezazkien edozein manipulazio artifizial egitea, bereziki lehiaketetan errendimendua handitzeko bada.
10. Espezie babestuetako animaliak saltzea, edukitzea eta erakustea, arlo honetako legeria kontuan izan gabe.
11. Kaleko katuen koloniei janaria ematea.

Hala ere, Udalak katuak babesteko eta orokorrean animaliak babesteaz arduratzen diren pertsonak eta elkarteak baimenduko eta lagunduko ditu kolonia horiei janaria emateko eta babesteko.

III. TITULUA

LAGUN EGITEKO TXAKURRAK ETA KATUAK

I. KAPITULUA. ERROLDA ETA IDENTIFIKAZIOA

9. artikulua.

Txakur jabe edo edukitzaileek derrigorrez identifikatu eta erroldatu beharko dituzte beren txakurrak, txakurra jaio edo erosi den momentutik hilabeteko epean. Berdin egingo da bestelako edozein lagun egiteko animalia bada ere.

Animaliek beren errolda identifikazioa eraman beharko dute beti nahitaez.



Mutrikuko Udala

Animalia ez erroldatzea, edo epez kanpo egitea, arau haustea izango da animalia babesteari buruzko Legearen 27.1. a artikuluan xedatutakoari jarraituz.

10. artikulua.

Identifikaziorako txakurrari lepoaren ezker aldean mikrotxipa edo osagai elektronikoa bat jarriko zaio. Mikrotxip hori albaitari ofizial batek edo horretarako gaitua dagoen albaitari pribatu batek jarriko dio.

Inplantazio hori Nekazaritza eta Arrantza sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Aginduan ezarritakoari jarraituz egingo da, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoan animaliak identifikatzeko metodo elektrikoaren erabilera eta ezar litekeen beste edozein arautan xedatutakoa erregulatzen den (101/2004 dekretuan xedatzen den moduan).

11. artikulua.

Udalaren ardura da Mutrikuko udal-barrutian txakurren errolda egitea eta kudeatzea. Errolda horretan erregistraturik egongo dira udal-barrutian bizi diren txakur-jabe edo edukitzaileen txakur guztiak eta baita udalerrian erroldaturik egon gabe ere udalerrian barrena ibili ohi direnak.

Errolda horretan, gaur egun Euskal Autonomia Erkidegoko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) haiek identifikatzeko jasota dauden datuez gain animalia edukitzeagatik izenpetutako erantzukizun zibileko aseguruari buruzko datuak ere jaso beharko dira.

Udala datu-basea urtero eguneratua edukitzeaz eta datuen ezkutukotasunaz arduratuko da.

12. artikulua.

Animalia identifikatzerakoan, albaitari gaitu jarduleak Txakurraren Kartilla Ofiziala eta animalia identifikaziorako agiri bat beteko ditu. Agiri horren bidez, batetik, identifikatu egingo da txakurra; eta bestetik, Nekazaritza eta Arrantza Sailburuaren 1993ko maiatzaren 5eko Aginduaren ondorioz sortutako EAeko Animaliak Identifikatzeko Erregistro Orokorrean (AIEO) animalia erregistratzeko eskaria egingo da.

13. artikulua.

Animalien jabeek edo edukitzaileek albaitariari jakinarazi beharko diote heriotzagatik izandako bajak, eta albaitariak horren berri emango dio Udalari edo dagokion Lurralde Erregistroari, heriotza gertatzen den egunetik kontatzen hasita 10 eguneko epean.

14. artikulua.

Animalia lapurtu edo desagertuz gero, salaketa jarri beharko da 24 orduko epe barruan eta hori egin ondoren, gertatutakoaren berri zuzenean emango zaio Lurralde Erregistroari, 10 eguneko epean.



Mutrikuko Udala

Arriskutsuak izan daitezkeen animalien kasuan, animalia lapurtu edo galduz gero salaketa jarri beharko da, goian aipatutako epean, eta jabeak arriskutsuak izan daitezkeen animalien udal erroldako arduradunari gertatutakoaren berri eman beharko dio, gehienez ere 48 orduko epean.

15. artikulua.

Txakur-jabeak edo edukitzaileak etxez aldatzen badira edo txakurraren jabetza eskualdatzen badute, 10 eguneko epea izango dute albaitariari eta dagokion Lurralde Erregistroari horren berri emateko.

16. artikulua.

Animaliaren jabeak ordainduko ditu identifikazioa, osasun liburuxka prestatzea eta erroldan izena ematea.

17. artikulua.

Ordenantza honen arabera abandonatutzat jotzen diren animaliak dagokion udal zerbitzuak edo horretarako kontratatutakoak jasota edukiko dituzte.

18. artikulua.

“Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak” moduan sailkaturiko txakurren kasuan, derrigorrezkoa da hala sailkatua dagoela agertzea Txakurren Kartilla Ofizialean eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Animalien Identifikazio Elektronikoko Erregistro Orokorrean.

Animalia horiek “Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak” gisa sailkatuta daudela adierazten duen plaka eraman beharko dute beti lepotik zintzilik, ondo ikusten dela.

19. artikulua.

Abenduaren 23ko 50/1999 Legeak, hain zuzen arriskutsuak izan daitezkeen animaliak izateko erregimen juridikoa arautzen duenak, eta hori garatzekoa den martxoaren 22ko 287/2001 Errege Dekretuak zehazten dituzten animalien jabeak, hazleak, zein edukitzaileak, behartuta daude haiek arautegiak zehazten duen eran identifikatu eta erroldatzeko.

II. KAPITULUA. ANIMALIEN OSASUN KONTROLA

20. artikulua.

Animalia bati gizakientzat zein gainontzeko animalientzat kutsakorra den gaixotasunen bat diagnostikatzeko badiote, edo horrelako gaixotasun sintomak baditu, edo pertsona nahiz animalia bati hozka egin badio, Udalak agindu dezake animalia hori zaintzapean eta behaketan jartzea.

Animaliaren batek pertsonentzat nahiz animalientzat kutsakorra den gaixotasunen bat badu (albaitari kolegiatu batek diagnostikatua) eta albaitariaren iritziz animalia akabatu egin behar bada, baimendutako sistemaren bat erabiliz akabatuko da, eta gastuak jabeak ordaindu beharko



Mutrikuko Udala

ditu. Horiez gain, gaixotasun kroniko sendaezinak edukirik jabeek behar bezala zaintzen ez dituztenak ere akabatu egin beharko dira.

21. artikulua.

Foru Aldundiko departamentuek edota Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Sailak egoki ikusten dituen neurriak hartuko ditu gaixotasun- agerraldiak badaude edo neurri horiek hartzea eskatzen duten bestelako egoerarik sortzen bada, eta neurri horiek animalien jabeek bete beharko dituzte, pertsonentzat eta gainontzeko animalientzat kaltegarriak izan ez daitezen.

22. artikulua.

Pertsona bati edo gehiagori hozka egin eta lesioak eragin dituela frogatu zaion animaliarik Gipuzkoako Lurraldean animalia haginkarientzat ezarrita dagoen indarreko zaintza- eta behaketapean jarriko da.

23. artikulua.

Aipaturiko zaintza eta behaketa aurrera eramango da bakar-bakarrik hozkada jasan duen pertsonak edo bere ordezkariak Udalean hozkadaren egiaztapena salaketa bitartez egin ondoren.

III. KAPITULUA. ANIMALIAK LEKU PUBLIKOETAN

24. artikulua.

Hiriko bide eta leku publikoetan eta eraikin kolektiboetako guztien erabilerarako zatietan, txakurrak kontrolpean eta uhal batez loturik eduki behar dira. Uhalak egokia izan behar du animalia-erabilerarako.

Salbuespen gisa, arriskutsu izan daitezkeen animaliatzat sailkatuta ez daudenak, erasotzeagatik aurrekari erregistraturik ez dutenak, libreki zirkulatu ahal izango dira Alkatearen Ebazpenez adieraziko diren ordutegi jakinean eta espazio mugatuan.

Hauetaz gain, txakurrentzako gune bereziak jarriko dira, modu egokian horniturik.

25. artikulua.

"Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak" eta "arriskutsuak izan daitezkeen animalia" gisa sailkatutako animalien kasuan, jabeek, hezitzaileek, edo edukitzaileek, aipaturiko baldintza orokorrez gain eta herri segurtasunari buruzko legerian xedaturikoez gain, ondoko baldintza berezi hauek bete behar dituzte:

- a) Txakurra dagoen leku edo esparrua segurtasun sistema egokiaz hornitu behar da animaliak ihes egitea eragozteko edo haurrek bertara erraztasunez sar ez daitezen, auzokoentzat, kaletik pasatzen direnentzat edo gainerako animalientzat inolako arriskurik ez dagoela bermatzeko.
- b) Debekaturik dago animalia lotzeko luza daitezkeen uhalak erabiltzea.



Mutrikuko Udala

- c) Bide publikoetan, eraikin kolektiboetako guztien erabilerarako zatietan, landa eremuetan eta, oro har, leku publikoetan, derrigorrezkoa da txakurrak une guztietan muturrekoa eramatea, bakoitzaren tipologia kontutan hartuta egokia duena.
- d) "Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak" katalogaturik dauden txakurrek hori adierazten duen identifikazio plaka bat eraman behar dute, betiere agerian eta idunekotik loturik, araututako modelokoa.
- e) "Baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliak" katalogaturik dauden txakurrek ezin dute inola ere parte hartu txakur erakusketa, Lehiaketa edo bestelako gertakizunetan.

26. artikulua.

Debekatua dago animaliak honako leku hauetan sartzea:

- a) Edozein motatako elikagaiak fabrikatu, gorde, garraiatu edo saltzeko lekuak.
- b) Ikuskizun publiko, kultural, kirol eta jostetako lokalak, igerileku publikoak eta osasun zentroak. Bakarrik sartu ahal izango dira leku horietan animalien lehiaketak edo ikuskizunak antolatzen direnean.
- c) Ikastetxeak, salbu eta heziketa prozesuan behar badira, eta kasu honetan zuzendariaren edo zentroko arduradunaren erantzukizuna izango da.
- d) Maiatzaren 1etik urriaren 31ra, erabat debekatuta egongo da animaliak hondartzetan zein igerilekuetan sartzea eta egotea.

Dena dela, maiatza eta urriko hilabeteetan, txakurrak 20:00 h. - 9:00 h. ordutegian toki horietan egotea baimenduko da.

Leku horien guztien titularrek debeku hau adierazten duten seinaleak ipini beharko dituzte ondo ikusteko moduan.

27. artikulua.

Ostalaritza arloko establezimendu publikoen jabeek, hau da, taberna, pentsio, jantoki, hotel, kafetegi edo antzekoen jabeek debekatu ahal izango dute, hala nahi izanez gero, bertan txakurrak sartzea. Txakurrak sartuz gero, ordea, derrigorrez eskatu beharko dute txakurrek identifikazioa izatea, uhalarekin lotuta egotea eta muturrekoa ipinita, txakurraren ezaugarriek eta izaerak halakorik eskatzen badute. Bestalde, txakurrek ezin izango dute gaixotasun sintomarik eduki edo zikinak egon. Ezin izango da txakurrik sartu janaria egin eta manipulatzeko den lekuetan.

28. artikulua.

Toki komunitario pribatuetan, hau da, kultur elkarte, jolas elkarte, auzokideen komunitateen erabilerarako leku eta abarretan animaliak sartu eta egon ahalko dira, baldin eta entitate horiek dituzten arauak onartzen badituzte eta arauak betetzen badituzte.



Mutrikuko Udala

29. artikulua.

Gida-txakurren laguntzaz ibiltzen diren pertsonentzat ez dago debekatua aurreko artikuluetan adierazitakoa.

30. artikulua.

Debekatua dago txakur-gorozkiak bide eta plaza publikoetan, haur parkeetan, lorategietan, eta oro har, apaindurarako eta/edo pertsonen pasadizorako den edozein lekutan uztea.

Horregatik, txakurrekin doazen pertsonak gorozkiak jaso egin beharko dituzte eta hurbilen duten errefusaren ontzi grisean utzi.

Txakurrak gorotzak bide eta plaza publikoetan, haur parkeetan, lorategietan, eta oro har, apaindurarako edota pertsonen pasabideko den edozein lekutan uzten baditu, txakur-jabea edo hartaz baliatzen ari dena izango da erantzule.

Horregatik, txakurrak kaka egiten badu kalean, momentu horretan berarekin doan pertsonak gorotza jaso eta gertuen aurkitzen duen errefusaren ontzi grisean utzi.

Txakur batek bide publikoa zikintzen badu, herritarrek eskubidea izango dute txakur- jabeari edo eramaileari zikindutakoa garbi dezala eskatzeko.

31. artikulua.

Animalia bide publikoetan egon edo ibiltzen bada, eta norbaiti eta ondasun publiko zein pribatuei kalterik egiten badie, jabea edo hartaz baliatzen dena izango da erantzulea.

IV. KAPITULUA. ANIMALIAK JASOTZEKO ZERBITZUA

32. artikulua.

Hildako animaliak:

Bide eta errepide publikoetan agertzen diren animalia hilen gorpuak Udalak edo zerbitzua kudeatzen duen enpresak jasoko ditu. Ez ditu jasoko, ordea, Lurzoruaren Legearen arabera lurzoru hiritarrezin kalifikatutako lekuetakoak, udal lurrak ez badira behintzat. Egoerak aginduta, udal zerbitzuek animalia hildakoren bat jabetza pribatuko lurren batetik jaso behar badute, sortutako kostuak animalia jabeak hartuko ditu bere gain, eta hala ez balitz lurraren jabeak.

33. artikulua.

Abandonatutako txakur eta katuen kontrola:

1. Herrian zehar edo herri inguruko bideetan zehar jaberik edo eramailearik gabe dabilen animalia jaso egingo da, eta dagokion zerbitzura eramango, propioa nahiz itundua dela, udal administrazioak eskatuta.



Mutrikuko Udala

2. Identifikaziorik gabeko animaliak jasota edukitzeko epea gutxienez 30 egun naturalekoa izango da. Eta epe horretan inork ez badu haren galde egin, ondoko hauetakoren bat egin ahal izango da: animalia jabe egin, beste norbaiti eman edo hura hil.

Animaliak identifikaziorik baldin badarama haren jabeari animalia jaso edo erretenu dela jakinaraziko zaio eta jabeak 7 egun baliadun izango ditu hura berreskuratzeko. Animalia zentroan jasota egon den artean izandako gastuak jabeak ordaindu beharko ditu. Epe hori igaro eta jabeak animalia berreskuratu ez badu, aurreko idatz zatian adierazitakoa egingo da animaliarekin.

3. Albaitariaren txostenak animalia egoera zein osasuna txarrak direla eta bere izaera arriskutsua dela adierazten badu, animalia akabatzeko epea aldatu egin ahal izango da, eta presaz akabatu ahal izango da.

4. Zerbitzu propio nahiz itunduan utzitako animalia identifikatuak, jabeak alde aurretik haien jabetzari espreski uko egin badiote, animaliak eskatzen dituen edonori eman ahal izango zaizkio 30 eguneko epean, gehienez ere. Horrelakoetan animalia uko egin dionak ordaindu beharko ditu jasota egon den bitartean sortutako kostuak.

5. Lakiolariak lanean ari diren bitartean Agintaritzaren Agentetzat hartuko dira, ondorio guztietarako.

IV. TITULUA

ANIMALIEN ALDI BATERAKO MANTENIMENDUAZ ARDURATZEN DIREN ESTABLEZIMENDUAK

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

34. artikulua.

Titulu honetan barnebiltzen dira:

- a) Hazkuntza eta hezkuntza zentro eta aterpetxeak.
- b) Animaliak saltzeko lokalak.
- c) Albaitaritzako kontsultategiak, klinikak eta ospitaleak.
- d) Udalerrietako aldi baterako jarduerak (zirkoak, zoo ibiltariak).

35. artikulua.

Jarduera horiek guztietarako udal lizentzia beharko da, eta lizentzia hori sailkatutako jardueren araudian ezarritakoaren arabera izango da.



Mutrikuko Udala

II. KAPITULUA. HAZKUNTZA ZEIN HEZKUNTZA ZENTROAK ETA ALDI BATERAKO ATERPETXEA

36. artikulua.

Hazkuntza zentroek, hezkuntza zentroek eta animalien egoitzek animalien sarrera eta irteeren erregistro liburua eduki beharko dute. Liburua arlo honetan eskumenak dituzten osasun agintarien esku egongo da.

37. artikulua.

Eraikuntzek, instalazioek eta ekipoen giro garbia sortu beharko dute, bertan dauden animaliak babesteko dituzte eta egin behar izaten diren jarduerak zoo-sanitarioak erraztuko dituzte. Halaber animaliak erraz manipulatzeko aukerak eman beharko dira eta animalien izaerari egokituta egon beharko dute, hartara animaliei bizi- baldintza egokiak eskaintzeko.

38. artikulua.

Zentroek barruko saneamendu-sarea eduki beharko dute eta gorozkiak zein ur zikinak desagerrarazteko neurri zuzentzaile egokiak edukiko dituzte, arlo horretako araudiak jasotakoaren arabera, osasun publikoan zein inguruko osasun egoeran egon daitezkeen arriskuak gutxitzeko.

Zentroetan edateko ura egon beharko du, bertan dauden animaliek zein pertsonak edan dezaten.

39. artikulua.

Zentroetako esparruak, lokalak zein kaiolak erraz garbitu eta desinfektatzeko moduan eta materialekin eraikiko dira. Esparru horiek gutxienezko azalera izango dute, animalien taiminaren arabera izango dena, animalien ongizatea bermatzeko.

40. artikulua.

Lokalak, animaliekin kontaktuan dauden tresnak eta animaliak garraiatzeko ibilgailuak, halakorik balego, garbitu eta desinfektatzeko tresnak zein baliabideak eduki beharko dituzte.

41. artikulua.

20 animalia koiola bat eduki beharko dute gutxienez, gaixorik dauden animaliak eta gaixorik dauden susmoa dagoenean, bertan isolatu, bahitu eta behatzeko. Kaiola hauek erraz garbitu eta desinfektatzeko modukoak izango dira.

Era berean, animalien gorpuak eta material kutsagarriak ezabatu edo desagerrarazteko bitarteko egokiak eduki beharko dituzte.

42. artikulua.

Zentro hauek garbitasun eta profilaxi programa definitu bat egin beharko dute alaitari tekniko batek oniritzia emanda, eta honako hau jasoko du gutxienez: behar den bakoitzean eta,



Mutrikuko Udala

gutxienez, sei hilabetean behin, animaliekin kontaktuan dauden materialak eta lokalak sakon desinfektatuko direla eta intsektuen eta arratoien kontra fumigatuko direla.

Albaitari-ikuskatzaile ofizialek instalazioak zein bertako animalien egoera ikuskatu ondoren osasunaren eta garbitasunaren aldetik akatsen bat ikusten badute, jardueraren titularrei akatsak zuzentzeko behar diren neurriak hartzeko eskatuko diete.

III. KAPITULUA. ANIMALIAK SALTZEKO LOKALAK

43. artikulua.

Animaliak saltzen dituzten establezimenduek albaitari-aholkulari bat eduki beharko dute. Albaitari-aholkularia animalien sarrera eta irteerako erregistro- liburuaz arduratuko da, eta honako hauek ere jaso beharko dituzte bertan: mota, arraza, adina, jatorria, inportazio-baimenaren zenbakia, sarrera eta irteerako data, animaliaaren helburua eta bestelako datu interesgarriak. Liburuak Udalaren esku egon beharko dira.

Bizirik dagoen animalia saltzen duenak animaliaaren jatorria, ezaugarriak eta osasun egoera jasotzen dituen agiri bat eman beharko dio erosleari. Edonola ere, nahiz eta saltzaileak agiri hori eman, animalia salmentaren unean detektatu gabeko gaixotasunen bat inkubatzen ari bazen, saltzaileak horren erantzukizuna

44. artikulua.

Animaliak saltzen dituzten lokaletako esparru, kaiola edo bestelako tokiak egokiak izan beharko dira, bertan erakusgai dauden animalien egoera egokia izan dadin.

45. artikulua.

Inoiz ere ezingo da babestua dagoen faunako animaliarik komertzializatu.

IV. KAPITULUA. ALBAITARIEN KONSULTATEGIAK, KLINIKAK ETA OSPITALEAK

46. artikulua

Animalia txikientzako kontsulta klinikoak eta osasun tratamenduak eskaintzen dituzten anbulatorio izaerako establezimenduak, honela sailkatuko dira: Albaitari Kontsultategia, Albaitari Klinika eta Albaitari Ospitalea.

1. Albaitari Kontsultategia: gutxienez itxarongela eta kontsulta gela eduki behar ditu eta bertan sendaketa eta kirurgia ebakuntza txikiak egin daitezke.
2. Albaitari Klinika: gutxienez honako hauek eduki behar ditu: itxarongela, kontsulta gela, ebakuntzak egiteko gela, instalazio erradiologikoak, laborategia eta suspertze-atalak.
3. Albaitari Ospitalea: Albaitari Kliniketik dituztenez gain, ospitaleratze-gela ere eduki behar du, eta bertan 24 orduko osasun-zainketa eta ospitaleratuta dauden animalien eten gabeko zainketa ziurtatu behar dute.



Mutrikuko Udala

47. artikulua.

Establezimendu horiek guztiek udal- lizentzia beharko dute, eta isolatuta dauden eraikinetan edo beheko plantan dauden lokaletan kokatu ahal izango dira, albaitari-ospitaleak izan ezik. Edonola ere, debekatua dago etxebizitza erabilerako eraikin batean horrelako jarduerarik jartzea.

48. artikulua.

Albaitari ospitaleek honako baldintza hauek bete beharko dituzte baimenak lortzeko: etxebizitzetatik aldentuta egongo dira, aparteko eraikin batean. Eraikina itxita egongo da, eta gunea librea ere izango du, ospitale-plaza bakoitzeko 20 m².

49. artikulua.

Debekatua dago honako leku hauetan aldi baterako zein aldizkako albaitari- kontsultategia edukitzea: merkataritza establezimenduetan ezein bertako lokalen batean (botiketako bulegoetan, janari dendetan, ostalaritzako lokaletan eta jantokietan bereziki), bai eta animaliak saltzeko lokaletan zein animaliak babesteko elkarteen lokaletan ere.

50. artikulua.

Ekipamenduek zein instalazioek sektoreko arautegia betetzeaz gain, honako hauek ere bete beharko dituzte:

1. Lurzorua iragazgaitza, erresistentea eta garbigarria izango da.
2. Parametro bertikalak lurzorutik gutxienez 1,75 m-ko altuera arte egongo dira alikatatuta. Gainontzekoen eta sabaiaren materialak erraz mantendu, garbitu eta desinfektatzekoak izango dira.
3. Edateko ura, ur hotza eta beroa izango dituzte (gehienez 82° C-ra artekoa).
4. Hildako animalien gorpuak kentzeko baimendutako bideak erabiliko dira.
5. Bertan sortutako hondakin organikoak kentzeko, ontzi itxiak eta estankoak erabiliko dira eta une bakoitzean indarrean dauden arauak bete beharko dituzte.
6. Animalien gorozkiak zabor-poltsa iragazgaitz eta itxietan desagerraraziko dira.
7. Instalazio, tresna eta ibilgailuen garbiketa, desinfekzio eta desinfektazio- lanak era sistematiko, periodiko eta jarduerak aginduko duen aldietan egin behar dituzte bertako langileek. Horrez gain, eta urtean behin gutxienez, lokala ofizialki baimendutako enpresa batek desinfektatu eta desinsektatuko du.

51. artikulua.

Albaitari klinika, kontsultategi edo ospitale bat ireki eta funtzionamenduan jartzeko beharrezkoa izango da Zuzendaritza Teknikoak albaitari profesional kolegiatu bat edukitzea eta establezimenduan burutuko diren jarduera guztiak lanbidean aritzeko baimendutako kolegiatu gaituen bidez egitea.



Mutrikuko Udala

V. KAPITULUA. ALDI BATERAKO JARDUERAK. (ZIRKOAK, ZOOAK, ERAKUSKETA MUGIKORRAK, ETAB.)

52. artikulua.

Aldi baterako jarduerak une bakoitzean indarrean dauden udal-baimenak beharko dituzte.

53. artikulua.

Era berean, hainbat osasun eta garbitasun baldintza bete beharko dituzte, jarduera finkokoek dituztenen antzekoak, baina aldi baterako jarduerentzat ezarritako salbuespenekin batera.

54. artikulua.

Honako agiri hauek guztiak eguneratuak eduki beharko dituzte: baimenak, ziurtagiriak, jabetzari buruzko gainontzeko betebeharrak eta jardueran parte hartzen duten animalien osasun zein jatorri ziurtagiriak.

V. TITULUA.

ZEHAPEN ARAUBIDEA

I. KAPITULUA. ARAU-HAUSTEAK

55. artikulua.

Ordenantza honi jarraituz, arau-haustek arin, larri eta oso larrietan sailkatuko dira, osasunerako dituzten arriskuak, arduragabekeria maila, sortutako kaltearen larritasuna eta berriro egin ote diren kontuan izanda.

A. Arau-hauste arinak izango dira:

- a. Errolda identifikaziorik gabeko lagun egiteko animaliak edukitzea, identifikatuta egotea derrigorrezkoa bada.
- b. Animaliak garraiatzea Lege eta Erregelamenduetan ezarritakoa bete gabe.
- c. Animaliak ondo zaindu eta begiratu ezin diren lekuetan edukitzea.
- d. Animaliak sortaraz ditzakeen kalteetarako erantzukizun zibileko aseguruak ez izatea.
- e. AIEOari zentsurako identifikazioaren berri edota, 101/2004 Dekretuko 3. artikuluan jasotakoaren arabera, txakurren zentsuko identifikazioan izandako aldaketak ez jakinaraztea.
- f. Aurkeztutako albitari-ziurtagiria edo/eta ziurtagirian jasotako datuak gezurrezkoak izatea.
- g. Animaliei tratu iraingarria ematea edo haien izaerari ez dagozkion jokaerak edo jarrerak edukiaraztea.



Mutrikuko Udala

- h. Ordenantza honetan zein bestelako lege eta araudietan xedatutako bete behar eta debekuak ez betetzea, egin den arau- haustearen izaera dela eta bestelako kalifikazioen bat duen kasuetan izan ezik

B. Arau-hauste larriak izango dira:

- a. Animalien gorozkiak bide zein plaza publikoetan, haur parkeetan, lorategietan, leku apaingarrietan eta pertsonak ibiltzeko lekuetan uztea.
- b. Garbitasun eta osasun egoeraren aldetik egokiak ez diren lekuetan animaliak edukitzea, janaririk eta beharrezko osasun asistentziarik gabe.
- c. Animaliak antzutea, gorputz atalen bat moztea eta akabatzea albaitariaren kontrolik gabe edo legeek zein araudiek ezarritako baldintza eta eskakizunetan ezarritakoaren kontra.
- d. Ez txertatzea eta derrigorrez eman beharreko tratamenduak ez ematea.
- e. Animaliak baimenik gabe saltzea.
- f. Ordenantza honen ezarpen eremuan dauden animaliak aldi batean edukitzea, hazi edo saltzea, Legeek zein Araudiek ezarritako baldintza eta eskakizunak bete gabe.
- g. Animaliei tratu txarrak ematea, alferrik sufriaraziz, zaurituz edo gorputz atalen bat moztuz.
- h. Animaliei alferrikako sufrimendua eta kalteak eragiten dizkieten substantziak ematea zuzenean zein janariaren bitartez.
- i. Kalteak eragin ditzaketen animaliak behar bezala ez zaintzea eta behatzea.
- j. Animaliak min larriak eta nabarmenak dituela jakin eta albaitaritza asistentzia egokirik ez ematea.
- k. Administrazio-baimenik ez duten ikuskizunetan animaliak erabiltzea.
- l. Arriskutsua izan daitekeen animalia edo baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animalia bat solte lagatzea edo bere ihesa edo galbidea ekiditeko beharrezko neurriak hartu ez izana.
- m. Arriskutsua izan daitekeen animalia edo baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animalia identifikatzeko bete beharra ez betetzea.
- n. Arriskutsua izan daitekeen animalia edo baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animalizat katalogatutakoa leku publikoetan muturrekorik gabe edo katearekin nahiz uhal ez luzagarriarekin lotua ez ematea.
- o. Arautegi honetan edo ezartzen den beste legerian zehazten diren bete beharreko funtzioen arabera, agintari eskudunak edo agenteak eskatutako informazioa ez ematea, informazio emateari aurka egitea, zehaztugabeko informazioa edo informazio faltsua ematea.
- p. Zigor espedientea hasi aurreko bi urteetan zehar hiru arau-hauste arin egin izana, baldin eta zigorra ezarri bazaio erabaki irmo bidez.



Mutrikuko Udala

C. Arau-hauste oso larriak dira:

- a. Jabeak txakur biltegian (propioa nahiz itundua) jasota dauden animalien ardura hartu nahi ez izatea, nahiz eta jabea identifikatua egon.
- b. Animaliak era bortitzen batean edo substantzia toxikoak emanda hiltzea.
- c. Lagun egiteko edo etxeko animaliak abandonatzea.
- d. Animalianganako krudelkeria, tratu txarrak edo animalien sufrimendua islatzen duten eszenak grabatzea.
- e. Baimendutako ikuskizunetan parte hartzen duten animaliei anestesia, drogak eta abar ematea, horien bidez haien berezko portaera guztiz kontrako bihurtu ahal izateko.
- f. Pozoitutako janaria lagatzea bide eta espazio publikoetan.
- g. Animaliak debekatutako ikuskizun publikoetan erabiltzea.
- h. Arriskutsua izan daitezkeen animalia edo baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko edozein motatako animalia. Jaberik ez duena, helbide ezagunik ez duena, datuak ezagutzeko identifikazio sistemarik ez duena eta erroldatua ez dagoen animalia abandonatutzat hartuko da. Baita ere, abandonatutzat joko da, nahiz eta erroldatuta egon, bere desagertzea arautegiak ezartzen dituen epeetan salatu ez dena edo bide publikotik jaberik gabe dabilena.
- i. Gaitasun ziurtagiria ez duen pertsonak arriskutsuak izan daitezkeen animaliak trebatzea.
- j. Arriskutsuak izan daitezkeen txakur edo animaliak baimenik gabe edukitzea.
- k. Lizentzia ez duen norbaiti arriskutsua izan daitezkeen txakur edo animalia saltzea edo transmititzea.
- l. Animaliak bere oldarkortasuna areagotzeko edo debekatuta dauden ekintzetarako trebatzea.
- m. Animalien oldarkortasuna frogatu nahian arriskutsuak izan daitezkeen animalia edo baldintza berezi batzuk betez eduki beharreko animaliekin lehiaketak, ariketak, erakusketak eta ikuskizunak antolatzea, egitea edo bertan parte hartzea.
- n. Zigor espedientea hasi aurreko bi urteetan hiru arau-hauste larri egitea, atzera bota ezineko erabakiaren bidez ordaindu beharreko zigorrarekin.
- o. Zakur-arraza arriskutsuak haztea edo nahastea

II. KAPITULUA. ZEHAPENAK

56. artikulua.

1. Ordenantza honetan jasotako arau- hausteei 60,00 euro eta 3.000,00 euro arteko isunak jarriko zaizkie, eskala honen arabera:



Mutrikuko Udala

- Arau-hauste arinak: 60,00 eta 300,00 euro artean.
- Arau-hauste larriak: 301,00 eta 1.500,00 euro artean.
- Arau-hauste oso larriak: 1.501,00 eta 3.000,00 euro artean.

Zehapenen zenbatekoak urtekoak izango dira, eta eguneratu egingo dira beharrezkotzat ikusten bada, ordenantza fiskalen berrikuspenarekin batera.

2. Arau-hauste larrien edo oso larrien kasuan instalakuntzak, lokalak edo establezimenduak denboraldi batez itxi daitezke. Arau-hauste larrien kasuan gehienez ere bi urtez itxiko dira eta arau- hauste oso larrien kasuan, berriz, gehienez lau urtez, eta animaliak erostea galaraziko zaio lau urtez.
3. Arau haustea egin duenak, egindako arau haustearengatik jarriko zaion zigorraz gain, arau hauste horrengatik udalari sortzen zaizkion gastu guztiak ere ordaindu beharko ditu.

57. artikulua.

Zigor espedientea hasita, arau-hauste gehiago egitea saihesteko asmoz, honako zuhurtasun-neurri hauek hartu ahal izango dira:

a) Animaliairen batek ondoko zerrendan jasotako egoeraren bat bizi izan duela susmatzen baldin bada, animaliairen zaintza eta ardura kendu egingo zaio jabeari:

- Behar bezala alojatuak eta elikatuak ez dauden animaliak.
- Albaitariaren tratamendurik gabe gaixo eta/edo zaurituak dauden animaliak.
- Pertsonentzat gaixotasun kutsagarriak dituztenak.
- Gaixotasun kroniko larri edo sendaezinen bat dutenak, gorputz atal mozketa mingarriren bat, oinaze larri eta itzulezinen bat dutenak.

b) Instalazioak, lokalak edo establezimenduak prebentzio moduan ixtea.

Zuhurtasun-neurriak ez dira etengo harik eta horretarako arrazoiak desagertzen ez diren bitartean. Neurri hauek ez dira luzaraziko espedientearen ebazpen irmoa baino areago, salbu eta ezarritako zigorrak instalazioa epealdi jakin batez ixtea badarama.

58. artikulua.

Isunak borondatezko epean zein premiamenduzko bidea erabiliz kobratuko dira, toki-arabidean ezarritakoaren arabera.

59. artikulua.

Arau-hauste arinak lau hilabeteren buruan preskribituko dira, larriak urtebeteren buruan eta oso larriak bi urteren buruan.



Mutrikuko Udala

Arau-haustek 3.505,00 € baino gutxiagokoa badira, urtebeteren buruan preskribituko dira, eta bost urteren buruan, aldiz, aipatutako kopurukoa edo handiagoa izanez gero.

60. artikulua

Isunen zenbatekoa neurtzeko eta aurreko artikuluan ezarritako zigorren iraupena zehazteko, honako zirkunstantzia hauek hartuko dira kontuan:

- a) Arau-haustek gizarte-mailan eta osasunean izandako eragina eta ekarri duen kaltea.
- b) Legez kanpoko irabazi asmoak eta horren bitartez izandako irabazien kopurua.
- c) Arau-haustek behin eta berriro egitea. Arau-haustea berriro egin dela esaten da lehendik ere, zigor-espedita hasi aurreko bost urteen barruan Ordenantza honetako arau-hauste bat dela eta zigorra ezarri izan bada administrazio bideko erabaki irmoaren bidez.
- d) Arau-haustearen gaitzesgarritasun mailan (larritasuna emanaz) eragina izan lezakeen beste edozein gorabehera. Horretarako, modu berezian kontuan hartuko da adin txikikoen aurrean animalien kontra erabilitako biolentziak.

Ekintza berak bi arau-hauste administratibo edo gehiago ekartzen baditu, zenbateko handiena daukan isuna ezarriko zaio. Espedientea izapidetu eta ebazteko organo aginpideduna ahalmen zigortzailea duena izango da.

III. KAPITULUA. ZIGORTZEKO ESKUDUNTZA

61. artikulua.

Zigortzeko ahalmena izateko, ezinbestekoa izango da zigor-espeditari ekitea, horretarako legeak edo bestelako arautegiek ezarritako bideei jarraituz.

Animalien babeserako 6/93 Legean araupetutako organo administratiboen eskuduntza zigortzailearen kalterik gabe, espediente zigortzaileak, Udalak, bideratuko ditu, eta arau-haustek oso larriak direnean, eskuduntza duen Foru Organoari helaraziko dizkio. Horrek jarritako isunak udalaren diru kutxetan sartuko dira.

Arau-hauste arinak zigortzeko eskumena alkateak izango du eta, larriak zigortzekoarena Osoko bilkurak.

Ordenantza honetako edozein zigor- ezartzek ez du esan nahi zigortua erantzukizun zibiletik salbuetsia geratzen denik.

Arau-haustek delitu edo falta izaera baldin badu, gertatuen berri epaitegiari emango zaio eta Administrazio Organoak ez du aktuaziorik egingo.



Mutrikuko Udala

INDARGABETZE XEDAPENA

Indargabetuta geratzen dira, berriaz, Udalbatzak 1996ko martxoaren 28an onartutako Animaliak edukitzeari eta Babesteari buruzko Ordenantza eta Ordenantza honen aurka dauden Udal Ordenantza, Araudi edo Bandoak.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65. eta 70. artikuluetan ezarritakoaren arabera jarriko da indarrean.